

LABURBIRA 2013
Film Laburren Zirkuitua
Otsailaren 27tik martxoaren 27ra

BEERBUG. 2012 (8')



ANDER MENDIA ETXEBARRIA.

Getxo, 1978. Arte Ederretan lizentziatua EHU, hiru dimentsioko animazio-aren alorreko masterra ere badauka. Ibilbide profesionala bere espezialitatearen inguruan garatu du: animazioaren eta grafismoaren inguruan, alegia. Baleuko ekoizpen-etxean aritu da lanean 2001etik proiektu honekin hasi zen arte; modelatze sailaren arduraduna gisa, eta hainbat proiektutan moldatzaile eta animatzaile gisa jardun du. Katue ekoizpen-etxea sortu zuen 2010ean, bere proiektuak garatzeko.

Besteak beste lan hauetan aritu da:

- Betizuak izar artean
- Unibertsolariak munduaren hertzaren bila
- Olentzero & the magic log
- Olentzero eta oparien ordua
- Betizu eta Xagaduko misterioa
- Betizu eta urrezko zintzarria
- Black to the moon (still in production)

Sariak eta jaialdiak

IV. HUHEZINEMAn Goiena Saria, Lekeitioko XXXIII Euskal Zine eta Bideo Bileran profesional mailan fikziozko kortorik onena, Anonimul International Independent Film Festival (Romania), Babel Film Festival (Cagliari), Zinebi 52 (Infoeuskadi atala), Begibistan 2011. Amurrioko V. Zine Astea eta Zinevasco 2011 (Caracas)

Sinopsia

Joek errepide ertzeko gasolindegi batean lan egiten du. Egun batez, garagardo bat hartzeko atsedean hartzea erabakiko du. Edariaz gozatzeko ahaleginak huts egingo dio, norbait lapurretan ari baitzaio muturraren aurrean.



LABURBIRA 2013

Film Laburren Zirkuitua

Otsailaren 27tik martxoaren 27ra

DESENTXUFATUAK. 2011 (9'45'')



BERNUES ANAIAK.

Bernues anaiak 2010ean hasi ziren elkarrekin lan egiten. Anaien artean, gidoilari bat topatu dezakegu, errealizadore pare bat, eta arte ikasketak egin dituen beste bat. Gune propio bat eduki nahi zuten beraien proiektuak eta ideiak aurrera ateratzeko. Orduan sortu zen “Acronica Producciones”, Bernues anaien ekoiztetxea.

Filmografia

“SIN PRISA” - 2010

“Nafarroako artista gazteen tokapetak 2010”. 2. saria

“DESENTXUFATUAK” - 2011

“Nafarroako artista gazteen tokapetak 2011”. 1go saria

Berriozarreko “Ficbe 2011”. Nafarroako laburmetrairik onena.

Iruñeako “Alternatif 2012”. Nafarroako laburmetraitxorik onena.

Lekeitioko “Euskal zine bilera 2012”. Laburmetrairik onena.

“MUSIKA AIREAN” – 2012

Kontseilua “Euskaraz bizi nahi dut” antolatutako bideo lehiaketan lan irabazlea.

Sinopsia

Zer egiten duzu
dagoeneko ez duzula
balio esaten dizutenean,
gizarteak albora
uztean? Nola egiten diozu
aurre azken aurrerakuntza
teknologikoak nagusi
diren munduari telebista
zahar bat baino ez
bazara?



LABURBIRA 2013
Film Laburren Zirkuitua
Otsailaren 27tik martxoaren 27ra

DEUS ET MACHINA. 2012 (8'30'')



KOLDO ALMANDOZ.

Donostia, 1973. Berrogei urte egitear dela, bere biografia ezabatu eta sekta batean sartzea erabaki du. Oraingoan, ez da kontakizun interesgarriarik bere bizi berrian... eta zaharrean ere ez.

Filmografia

Razielen itzulera (1997)
A dar ba kar (2000)
Belarra (2002)
Amuak (2004)
Desio Ehiztaria (2005)
Midori (2006)
Columba Palumbus (2007)
Aurrecue (2008)
Karea (2008)
Larunbata (2008)
Ahate Pasa (2009)
Trikuaren hiztegia (2011)
Mantis Estroboscópical (2011)
Msilale Wanawake (2012)

Sinopsia

Langilea egunero joaten da fabrikara lanera. Eginbehar zehatz bat egin dezakeen langile bakarra da. Egunero makinak pizteko zeremoniari ekin, eta bere lan zehatz eta monotonoari helduko dio. Gaur, ordea, erabaki bat hartu du...



LABURBIRA 2013
Film Laburren Zirkuitua
Otsailaren 27tik martxoaren 27ra

OINAZE EGOITZAK. 2012 (9'30'')

ERABAKI PRODUKZIOAK:

OIHAN AMEZUA, KARLOS IBARBIA, NETZER BEREZIARTUA, ASIER SUSTAETA.

Natatxa films eta Nazkau ez!! produkzioak taldeen bateratzearekin sortzen da. Bide ezberdinak landu ondoren elkarlanean hastea erabaki genuen.

Natatxa-k laburmetrai batzuk eginak zituen baita iragarkiren bat edo beste ere. Nazkau ez!!! -ek berriz bideoklipak landu izan zituen ordura arte. Bi taldeek zituzten interes berdinak eta biek behar zuten material berdina, beraz bateratzea nahitaezkoa zen.

Urrestillako lokaletan dugu gure egoitza, Natatxa films taldeak zuen lokal berdinean.



Erabaki produkzioak-en helburu nagusia zine eta bideogintza indartzea da, laburmetraiak ekoiztuz. Eta aldi berean, Azpeitian dagoen hutsune eta gabezia betetzen saiatzea.

Filmografia:

Natxatxa Films

Recordman (2000); Bazkaria poxpolotan (2001); Bailara (2003); EHNaren aldeko iragarkiak; Tiobiborentzako CD multimedia (2004)

Nazkauez Produkzioak

Nazkauez taldearen "Jauna zuekin", "Zertarako", "Alperrana" bideoklipak
Ezinean taldearen "Erreta", "Galdera ikurrak", "Caotik tour", "Emakume" bideoklipak
Leok'k taldearen "Urolako tren" bideoklipa
"Azpeitia urteetan zehar" argazki-dokumentala 2012

Erabaki produkzioak

Oinaze egoitzak 2012

Sinopsia:

Bi pertsonaia bereziren arteko ezinezko amodio batek, beraien ahuldade eta gabeziak azaleratzen ditu.



LABURBIRA 2013
Film Laburren Zirkuitua
Otsailaren 27tik martxoaren 27ra

TORTILA. 2012 (8'15'')



IÑIGO LOPEZ.

1975an jaioa. EHU-n Arte Ederretan lizentziaduna. Kameragile eta telebista teknikari ikasketak egin zituen Salesianos-en. Zinema-zuzendaritza ikastaroa, Bilboko Arte Eszenikoetako Eskolan.

K2000-an, Canal Bizkaia-n eta Oizmendi Telebista-n, teknikari eta grafismo lanetan ibilia. Urko Olazabal eta Fernando Bernal zuzendarien "Agrothriller" eta "La Venganza de los Iturregi" lanetan kameragile, muntaia eta posprodukzioa

Filmografia:

"No hay salida" (2004)
"Zombie Love Story" (2011)
"Sagarra" (2011)
"Tortila" (2012)

"Tortila" lanak jasotako sariak:

Lekeitioko Euskal Zine Bileran 2012 - 2. Saria argumentuzkoa

Igorreko Film Laburren Lehiaketa 2012 - aukeratua

FICA 2012 - I Festival Internacional de Cortos de Almuñécar (Huelva, Spain) - aukeratua

Sinopsia:

Bere senarrak ematen dizkion tratu txar eta irainak direla eta, emakume batek harremanak bukatzea erabakitzen du...



LABURBIRA 2013
Film Laburren Zirkuitua
Otsailaren 27tik martxoaren 27ra

ELKARTEA. 2013 (16')



KOTE CAMACHO.

Oiartzun, 1980. Leioan Arte Ederrak ikasi zituen garaiak Napartheid aldizkarian argitaratu zituen komikiak. Madril eta ondoren Londresera joan zen, bertan Julio Medem eta Juan Carlos Fresnadillo zuzendarientzat storyboard marrazkigile lanetan aritzeko. Bere kabuz hasteko Oiartzunera bueltatu zen eta 2010ean “La Gran Carrera” bere lehen laburra aurkeztu zuen. Lan honek mundu mailako 70 saritik gora jaso zituen.

2012ko abenduan, Durangoko Liburu eta Disko Azokako Irudienean, “Elkartea” lanaren aurre-estreinaldia egin zen eta 2013ko Beasaingo Gau Laburrean, Pelikularik onenaren saria hartu zuen.




Sinopsia:

Aspaldiko lau lagun elkartean biltzen dira afaltzeko. Haietako bat, zeini besteek arrastoa aspaldi galdu zioten, oso egoera ekonomiko larrian bizi da. Besteen jarrera orokorra, laguntza eskaintzearena izango da, hasiera batean behintzat. Benetako konpromisoa hartzea ordea, ez da hain erreza izango.

LABURBIRA 2013
Film Laburren Zirkuitua
Otsailaren 27tik martxoaren 27ra

HAMAIKETAKOA. 2012 (4')



TELMO ESNAL.

Zarautz, 1966. Zuzendari laguntzaile bezala aritu ondoren, bere lehen lanak jorratzen hasi zen Asier Altunarekin batera. Azken boladan bakarrik egitera ere ausartzen da, batzuetan zuzendari, besteetan gidoilari edo ardura biak hartuta.

Filmografia

“Urteberrion, Amona!” 2011
“Hona Bostekoa. KMK10” 2010
“Amona putz!” 2009
“Brinkola” 2008-09
“Taxi?” 2007
“Asedio. Koldobika Jauregi”. 2007
“Igartubeiti” Museorako bideoak. 2007
“Martin” 2005-06
“Trikitraka Trikitron” 2005-06
“Aupa Etxebeste!” 2005
“Korrika 2001” 2001
“40 ezetz” 1999
“Txotx” 1997



Sinopsia:

Egunero, ordu berean, Antonio eta Santik elkarrizketa berezi bat dute. Hiru emakume dira horren lekuko.

LABURBIRA 2013
Film Laburren Zirkuitua
Otsailaren 27tik martxoaren 27ra

BERRIRO IGO NAUZU. 2012 (9'25'')



CARLOS RODRIGUEZ.

Kultur ekitaldietarako ikus-entzunezkoetan jarduten den produktora da Morgancrea eta berau bertako Sormen Zuzendaria da.

Bere lanen artean hainbat museo eta erakusketetarako lanak aurki ditzakegu (San Telmo, Bibat, Untzi Museoa, Victoria Eugenia Antzokia,...). Promozio bideoak (Donostia 2016, Tabakalera).

Donostiako Zinemaldiaren gainean egindako “Una historia del Zinemaldia’ telesaila, eta beste hainbat dokumental egin ditu kultura munduko pertsonaien gainean: (Edward Hopper, Hitchcock, Coppola, Orson Welles edo Hector Berlioz...).



Sinopsia:

Azken 150 urteetako euskal baserriaren bilakaeraren hurbilpen bat da, Kirmen Uriberen testu baten oinarritutakoa. Dokumentala eta fikzioa nahasten dituen garaiko laburmetrai bat, Morgancreak ekoiztua Donostia-San Sebastianeko San Telmo Museoarentzako eta Gipuzkoako hainbat baserritan grabatua.

Mundu mailako 20 jaialditan aukeratua izan da Alemania, Italia eta Espainian hainbat sari jaso dituelarik.

LABURBIRA 2013
Film Laburren Zirkuitua
Otsailaren 27tik martxoaren 27ra

OHARRAK

Film Laburren Zirkuituaren 2013ko edizioan kontuan hartu beharreko zenbait ohar:

- **FORMATUA:** DVD formatuan egingo da zirkuitu osoa. Pantaila, DVD irakurgailua eta proiektorea bertan egotea elkartearen ardura izango da. Topagunetik DVDa eta publizitaterako euskarriak 15 egun lehenago bidaliko dizkizuegu, lehenago posible bada.
- **DATAK:** Zirkuitua **otsailaren 27tik martxoaren 27ra bitartean** egingo da. Zuzendariekin solasaldia eskatu duzuenoi mezu bidez jakinaraziko dizuegu lotzerik izan dugun edo ez eta zein zuzendari joango den zuenera. Emanaldia baino astebete lehenago harremanetan jar zaitezten telefonoak ere trukatu ditugu. Hasierako eskaeretako datetan aldaketak egonez gero, euskarri fisikoetan ez da aldaketarik egongo baina iragarki nahiz webgunean moldaketaren berri ematen saiatuko gara, errakuntzaren bat ikusiz gero, jakinarazi mesedez.
- **EUSKARA ELKARTEAREN EKARPENA:** Emanaldia, publizitate euskarri eta kudeaketaren truke elkarteek ordaindu beharrekoa 300 € izango da. Herri berean bigarren edo hirugarren emanaldia antolatzearen truke 200 € saio bakoitzagatik.
- **SOLASALDIAK:** Hamaikagarren edizio honetan bi zuzendari ibiliko dira herriz herriko solasaldietan. Zuzendariaren bisitarekin 60.00 eurotan igotzen da elkartearen ekarpena. Guztiari % 21eko BEZa gaineratuko zaio. Zuzendariari ordainketa Topaguneak egingo dio Zirkuitua bukatzean
- **AURKEZPENAK:** aurkezpenak egiteko eredu bat jasoko duzue, gogoan izan ideia bilketa bat dela, zuen esku dago hau erabiltzea.
- **DVDak:** Kontrakoa esan ezean, DVDak Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak Abadiñon duen egoitzara bueltatu beharko dira emanaldia bukatu eta 10 eguneko epean. Topaguneako norbaiti emanez gero, mezu bidez adierazi.
- Informazio gehiago edo zalantzak: amaia@topagunea.org

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa
Landako Elkartegia
Landako Etorbidea, 4 104 bulegoa
48200 Durango (Bizkaia)